



**LIBURUA**

**Izenburua:** 'Urdin Txiki eta Hori Txiki'. **Testua eta marrazkiak:** Leo Lionni. **Itzulpena:** Manu Lopez Gaseni. **Orrialde kopurua:** 48 orrialde, koloretan. **Argitaletxeak:** Pamiela eta Kalandraka.

**Manu Lopez Gaseni**

ITZULTZAILEA

«Lionniren liburuei poetikotasun handia darie, eta, hala ere, sinpletasuna dute oinarri»

**U**rdin Txiki eta Hori Txiki ez dira berdinak, baina lagun handiak dira. Kanean ikusten diren egun batean, elkar besarkatzen dute. Ohartu gabe, kolore berri bat osatu dute. Eta orduan etorri dira komeriak: inork ez ditu eza gutzen. Biribil urdin eta hori batetik abiatuta, adiskidetasunaren eta identitate indibidual nahiz kolektiboaren istorio berezia egin zuen Lionni ilustratzaileak. 1959an sortu zuen istorioa. Orain, Pamiela eta Kalandraka argitaletxeek berrargitaratu dute euskaraz, gatzelaniaz, galegoz, katalanez eta portugesez.


**Berez, 50 urtetik gora ditu istorioak, eta, hala ere, berriro argitaratu da. Zergatik uste duzu?**

Leo Lionni (Amsterdam, 1910-Toscana, 1999) XX. mendeko haurrentzako idazle-ilustratzaile klasiko bat da, eta *Urdin Txiki eta Hori Txiki* haren lehen lana da arlo horretan. Horregatik da hain garrantzitsua album hori euskaraz gureganatzea. Lionniren beste album garrantzitsu batzuk aipatzearen, hor daude *Matiasen ametsa* (Pamiela), *Frederick, Nadarin...*

**Sinpletasuna da liburuaren ezaugarri nagusia, ezta?**

Lionniren poetikaren ezaugarria da hori: haren liburuei poetikotasun handia darie, eta, hala ere, sinpletasuna dute oinarri. Erabiltzen dituen forma gehienek ume batek eginak dirudite, askotan collage-aren bitartez, eta adierazkortasun handia lortzen du horren bitartez.


**Biribil urdin bat, biribil hori bat eta hitz solte batzuk, horiek dira protagonistak.**



Bai, halaxe da. Diote trenean bere bilobekin zihoala, eskura zeuzkan aldzikari batzuk baliatu zituela ipuin bat kontatzeko. Handik ebaki zituen biribilak eta haiekin moldatu zuen bilobentzako ipuina. Kasu honetan, bi biribil izan ziren protagonistak –Urdin Txiki eta Hori Txiki–, oso lagun handiak. Jolasean dabiltzala, «nahastu» egiten dira, eta gurasoak ez dira umeak eza gutzeko gauza. Azkenean, arazoa argitu egiten da.

**Zein mezu igortzeko balio du liburuak?**

Liburu hau Lionnik haurrentzako argitaratu zuen lehen liburu iza-nik, nahiko nabarmena da asmo didaktikoa: batetik, kolore primarioak nahastetik sor daitezkeen beste kolore batzuk erakustea; bestetik, desberdinarekiko eta ezezagunarekiko mesfidantza... Bururatzen zaizkizun gai guztiak landu daitezkeen liburu honen bitartez (plastika, kolore berrien sorrera, adiskidetasuna, arrazakeria...), baina, batez ere, umeen irudimena piztea du helburu nagusia: jolas simbolikoaren garaian, gometxa gorri, hori edo urdin bat umei burutik pasatzen zaien guztia izan daiteke.



**LIBURUA**

**'Dortoka galdua'**

Argi dortoka jaioberria da. Hondar artetik burua atera du, eta itsasorantz abiatu da. Une horretan, baina, itsasargiko argia piztu da. Itsasargiaren argiari jarraituz, itsasorako bidea hartu ordez, itsasotik aldendu egin da. Galduta eta nora ezean, gaua pasatzeko leku baten bila hasiko da Argi. Ez daki non dagoen, ezta nor den ere. Zer egingo du dortoka jaioberriak bakarrik? Lortuko ote du bizirik irautea? Lortuko ote du itsasora iristea?



**Laura Perez**

Argitaletxea: **Aizkorri**



**LIBURUA**

**'Yoko-Ilargirako suziria'**

Otok, Maik eta Vivek Hiriko Parke zoragarrian jolastea maite dute. Badute han lagun bat, izaki handi bat: Yoko. Izaki kume magiko bat da, eta jolas arrunt bat hartu eta espazio-abentura bihurtzeko gaitasuna du. Jokoan sartu ahala, irabazteko gogo nagusitu da lagunaren artean. Adiskidetasunari eusteko gai izango ote dira Yoko, Oto, Mai eta Vive?



**Kevin S. Strader**

**Patxi Pelaez**

Argitaletxea: **Banaka**

**Multimedia**